Iurreta
Eleizateko Udala

## ALKATETZAREN DEKRETUA

Iurretako Udalak, Herri Bibliotekaren bidez, lehiaketa honen antolakuntzaren bitartez sormen literarioa eta, ondoren, haren hedapena sustatu nahi ditu.

Lehiaketa honen helburua adin-tarte eta kategoria ezberdinen bitartez sorkuntza literarioa sustatzea da eta berau bat datorren Iurretako Herri Bibliotekaren funtzioekin.

Iurretako Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak, 2019ko maiatzaren 30eko osoko bilkuraren erabaki bidez onartuak, II. kapituluan, norgehiagoka-araubideko diru-laguntzak emateko prozedura orokorra ezartzen du.

Herri bibliotekaren tekniko ertainak 2026ko urtarrilaren 8an txostena egiten du.

Udal Idazkaritzak 2026ko urtarrilaren 27an txostena egiten du.

Udal kontuhartzaileak 2026ko urtarrilaren 30ean txostena egiten du.

2026ko aurrekontu Orokorren 3321.48000 partidan 4.000€ euroko aurrekontu-zuzkidura dagoela.

### EBATZI DUT

LEHENENGOA.- 2026ko ekitaldian Iurretako XXIII. Literatur Lehiaketako deialdia onestea.

BIGARRENA.- 2026ko ekitaldian Iurretako XXIII. Literatur Lehiaketako deialdia arautzen dituen oinarriak onestea (1. eranskina) beronen testua jarraian azaltzen delarik.

HIRUGARRENA.- XXIII. Literatur Lehiaketako irabazleen sariak ordaintzeko, diru-laguntza izaerarekin, esleituko zaion 3.975€ko gastua onartzea.

LAUGARRENA.- Diru-laguntzen deialdirako eskaerak aurkezteko epea hamabost egun naturalekoa izango

## DECRETO DE ALCALDIA

La Biblioteca Municipal de Iurreta mediante la organización del certamen literario pretende estimular la creación literaria y su posterior divulgación.

El objeto de las presentes ayudas es fomentar la creación literaria en diferentes franjas de edad y categorías, estos objetivos forman parte de las funciones de la Biblioteca Municipal de Iurreta.

La Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Iurreta, aprobada por acuerdo plenario de fecha 30 de mayo de 2019, en su capítulo II establece el procedimiento general de concesión de subvenciones en régimen de concurrencia competitiva.

La técnica media de la biblioteca municipal en fecha 8 de febrero de 2026 emite informe.

La secretaría municipal en fecha 27 de enero de 2026 emite informe.

La interventora municipal en fecha 30 de enero de 2026 emite informe.

Existe consignacion presupuestaria en la partida 3321.48000 de los Presupuestos Generales del 2026 por importe de 4.000€.

### HE RESUELTO

PRIMERO.- Aprobar la convocatoria del XXIII. Certamen de Literatura de Iurreta durante el ejercicio 2026.

SEGUNDO.- Aprobar las Bases reguladoras del XXIII. Certamen de Literatura de Iurreta durante el ejercicio 2026 (anexo 1) cuyo texto se incluye a continuación.

TERCERO.- Aprobar el gasto por 3.975€, en concepto de subvenciones con destino a los premios de los ganadores en el XXIII. Certamen de Literatura.

CUARTO.- El plazo de presentación de solicitud para la convocatoria de la subvención será de quince días

Sinatzaile / Firmante: IURRETAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE IURRETA Data: 2026-02-09 12:20:41(UTC) Fecha: 09/02/2026 12:20:41 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: MARIA ISABEL ARRIZABALAGA SALGADO Data: 2026-02-09 13:04:38(UTC) Fecha: 09/02/2026 13:04:38 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: OSCAR COCA LORENTE Data: 2026-02-10 11:19:28(UTC) Fecha: 10/02/2026 11:19:28 (UTC)

Dekretuen zk. / N. decreto: 0144/26 Dekretuen data / Fecha decreto: 10/02/2026
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {d733a173-6ea5-428c-a258-2506138db73a} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Iurreta
Eleizateko Udala

da, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

naturales a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia.

BOSGARRENA.- Erabaki hau Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean eta udaletxeko iragarki oholean argitaratuko da.

QUINTO.- Publicar el presente acuerdo en la Base Nacional de Subvenciones y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

SEIGARRENA.- Ebazpen hau Kontu-hartzailetza Sailari eta Herritarrei Arreta Emateko Zerbitzuari helaraztea.

SEXTO.- Dar trasladado de la presente resolución al Departamento de Intervención y al Servicio de Atención a la Ciudadanía.

**AURKARATZE - BIDEAK**

Administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegi egokian BI HILABETEko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. Artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hala ere, nahi izanez gero eta aurreko paragrafoan aipatu den administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, jakinarazi den berariazko ebazpenaren kontra BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA jarri ahal izango da, ebazpena eman duen organoan, HILABETEKO epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Hori guztia, zure eskubideak babesteko egoki irizten diren egintza edo errekurtsoak aurkezteari kalterik egin gabe.

**MEDIOS DE IMPUGNACIÓN**

Contra el citado acto expreso, que es definitivo en vía administrativa, se podrá interponer en el plazo de DOS MESES, contados desde el día siguiente al de la recepción de la presente notificación, RECURSO CONTENCIOSO ADMINISTRATIVO ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo que corresponda, a tenor de lo establecido en los Arts. 8 y 46 de la ley 29/1998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

No obstante, con carácter potestativo y previo al Recurso Contencioso-Administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución expresa que se le notifica, se podrá interponer RECURSO DE REPOSICIÓN ante el mismo órgano que la dictó, en el plazo de UN MES que se contará desde el día siguiente al de la fecha de la recepción de la presente notificación.

Todo ello, sin perjuicio de cualquier otra acción o recurso que se estime oportuno interponer para la mejor defensa de sus derechos.

ALKATEA

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA

Sinadura elektronikoa, data eta dekretu zenbakia alboan
Firma eletrónica, fecha y número de decreto en el lateral

Bidebarrietakalea, 5 • 48215 IURRETA •Tfnoa: 94 620 12 00 •haz-sac@iurreta.eus•IFZ/NIF: P4812500I

Sinatzaile / Firmante: IURRETAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE IURRETA Data: 2026-02-09 12:20:41(UTC) Fecha: 09/02/2026 12:20:41 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: MARIA ISABEL ARRIZABALAGA SALGADO Data: 2026-02-09 13:04:38(UTC) Fecha: 09/02/2026 13:04:38 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: OSCAR COCA LORENTE Data: 2026-02-10 11:19:28(UTC) Fecha: 10/02/2026 11:19:28 (UTC)
Dekretuen zk. / N. decreto: 0144/26 Dekretuen data / Fecha decreto: 10/02/2026
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {d733a173-6ea5-428c-a258-2506138db73a} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Iurreta
Eleizateko Udala

## I. ERANSKINA

### IURRETAKO XXIII. LITERATUR LEHIAKETAREN DEIALDI PUBLIKOAREN OINARRI ARAUTZAILEAK

Jarduera esparru horretan, Iurretako Udalak beharrezkotzat jotzen du literaturaren arloa eta, zehazki, arlo horretako sormen artistikoa bultzatzen laguntzen duten kultur ekimenak sustatzea. Horrekin lortu nahi da arlo literarioa garatzea eta sendotzea gure herrian.

**1. oinarria.— Literatura-lehiaketaren xedea**

1. Iurretako Udalak lehiaketa honen antolakuntzaren bitartez sormen literarioa eta, ondoren, haren hedapena sustatu nahi ditu.

Berariaz eratuko den epaimahai batek aztertuko ditu lehiaketara aurkeztutako lanak eta proposatuko du zeintzuk diren irabazleak; sari moduan, saritutako lanak liburu batean argitaratuko dira eta liburu sorta edo durangaldeko liburudenda batean trukatzeko bonua emango zaie irabazleoi.

2. Kategoriak eta sailak.

Lau **kategoria** deitu dira, bakoitza genero literario ezberdin batez adierazita:

- Ipuina
- Poesia
- Bertso-paperak
- Komikia

Lau kategoria hauek 3 adin tartera zuzenduak daude, hurrengo **sailek** osotzen dituztelarik:

- Haurrak: Lehen Hezkuntzako 3-6. maila (8-12 urte bitartekoak)
- Gazteak: D.B.H. , Batxillergoa eta Lanbide Heziketa erdi-maila (13-18 urte bitartekoak)
- Helduak: 18 urtetik aurrerakoak

3. Gaia eta hizkuntza.

Gaia askea izango da, eta lanak originalak izan beharko dira, aldez aurretik argitaratu gabeak (ez zatika ez osorik) eta beste lehiaketa batean saritu gabeak.

Lanak euskaraz idatzitakoak izan beharko dira haur eta gazte sailetan, helduen atalean berriz, eskatzaileak euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango ditu lanak.

4. Lehiaketa honetara aurkeztuko diren kontaketek derrigorrez bete behar dute indarrean dauden legezko xedapenek ezarritakoaren araberako emakumeen eta gizonen berdintasuna.

5. Parte-hartzaile bakoitzak kategoria bakoitzean lan bakarra aurkeztu ahal izango du.

6. Lanak aurkezteko modua: DIN-A4 tamainako orrietan, orientazio bertikalean eta ordenagailuz idatzita aurkeztuko dira; orriak alde batetik bakarrik egongo dira idatzita. 1’5eko tartea



Sinatzaile / Firmante: IURRETAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE IURRETA Data: 2026-02-09 12:20:41(UTC) Fecha: 09/02/2026 12:20:41 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: MARIA ISABEL ARRIZABALAGA SALGADO Data: 2026-02-09 13:04:38(UTC) Fecha: 09/02/2026 13:04:38 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: OSCAR COCA LORENTE Data: 2026-02-10 11:19:28(UTC) Fecha: 10/02/2026 11:19:28 (UTC)
Dekretuen zk. / N. decreto: 0144/26 Dekretuen data / Fecha decreto: 10/02/2026
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {d733a173-6ea5-428c-a258-2506138db73a} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

utziko da eta Times New Roman letra erabiliko da, 12 tamainakoa. Orriak zenbatuta egongo dira eta margenak gutxienez 2.5 cm.

Eskabideak Iurretako Udaleko egoitza elektronikoaren bitartez ere bidali ahal izango dira: euskarri digitalean lanak .pdf luzapenarekin bidali beharko dira.

7. Lanen luzera: aurkezten den kategoriaren arabera honako luzera izan beharko dute, ondoren banaka zehazten dira.

8. Ez da onartuko Adimen Artifiziala erabili den lanik. Ezezkoa adierazi beharko da, kontakizunarekin batera (ikus I. eranskina). Egiaztapena zinpeko deklarazioaren bidez egingo da, auzitegiak egokitzat jotzen dituen kontakizunak berrikusteari kalterik egin gabe. Adimen Artifiziala erabiltzen dela detektatuz gero, kontakizuna automatikoki baztertuko da.

**IPUINA KATEGORIA**

- **Haur eta gazte saila:**

1. Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoak (8-10 urte): gutxienez, 1 orrialde eta gehienez ere, 2 orrialdeko luzera izango dute.
2. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoak (11-12 urte): gutxienez, 1 orrialde eta gehienez ere, 3 orrialdeko luzera izango dute.
3. DBHko 1. eta 2. mailakoak (13-14 urte): gutxienez orrialde bat eta erdiko eta gehienez ere, 4 orrialdeko luzera izango dute.
4. DBHko 3. eta 4. mailakoak (15-16 urte): gutxienez 2 orrialde eta gehienez ere, 5 orrialdeko luzera izango dute.
5. Batxilergoko 1. eta 2. mailakoak edo Lanbide Heziketako erdi-maila (17-18 urte): gutxienez 3 orrialde eta gehienez ere, 6 orrialdeko luzera izango dute.

6. **Helduak**: gutxienez 3 orrialde eta gehienez ere, 7 orrialdeko luzera izango dute.

**POESIA KATEGORIA**

- **Haur eta gazte saila:**

1. Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoak (8-10 urte): gutxienez 4 lerroko luzera izango dute.
2. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoak (11-12 urte): gutxienez 8 lerroko luzera izango dute.
3. DBHko 1. eta 2. mailakoak (13-14 urte): gutxienez 16 lerroko luzera izango dute.
4. DBHko 3. eta 4. mailakoak (15-16 urte): gutxienez 24 lerroko luzera izango dute.
5. Batxilergoko 1. eta 2. mailakoak edo Lanbide Heziketako erdi-maila (17-18 urte): gutxienez 32 lerroko luzera izango dute.

6. **Helduak**: gutxienez 40 lerroko luzera izango dute.

Sinatzaile / Firmante: IURRETAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE IURRETA Data: 2026-02-09 12:20:41(UTC) Fecha: 09/02/2026 12:20:41 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: MARIA ISABEL ARRIZABALAGA SALGADO Data: 2026-02-09 13:04:38(UTC) Fecha: 09/02/2026 13:04:38 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: OSCAR COCA LORENTE Data: 2026-02-10 11:19:28(UTC) Fecha: 10/02/2026 11:19:28 (UTC)
Dekretuen zk. / N. decreto: 0144/26 Dekretuen data / Fecha decreto: 10/02/2026
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {d733a173-6ea5-428c-a258-2506138db73a} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

**BERTSO-PAPERAK KATEGORIA**

- **Haur eta gazte saila:**

1. Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoak (8-10 urte): gutxienez 2 bertsoko edo 4 koplako luzera izango dute.
2. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoak (11-12 urte) gutxienez 3 bertsoko edo 6 koplako luzera izango dute.
3. DBHko 1. eta 2. mailakoak (13-14 urte): gutxienez 4 bertsoko luzera izango dute.
4. DBHko 3. eta 4. mailakoak (15-16 urte): gutxienez 5 bertsoko luzera izango dute.
5. Batxilergoko 1. eta 2. mailakoak edo Lanbide Heziketako erdi-maila (17-18 urte): gutxienez 6 bertsoko luzera izango dute.

6. **Helduak:** gutxienez 6-8 bertso izango dituzte.

**KOMIKIA KATEGORIA**

- **Haur eta gazte saila:**

1. Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoak (8-10 urte): gutxienez orrialde bakarreko luzera izango dute (azalik gabe).
2. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoak (11-12 urte): gutxienez orrialde bakarreko luzera izango dute (azalik gabe).
3. DBHko 1. eta 4. mailakoak (13-16 urte) : gutxienez 2 orrialdeko luzera izango dute (azalik gabe).
4. Batxilergoko 1. eta 2. mailakoak edo Lanbide Heziketako erdi-maila (17-18 urte): gutxienez 3 orrialdeko luzera izango dute (azalik gabe).
5. **Helduak**: gutxienez, 3 orrialde izango dituzte (azalik gabe).

**2. oinarria.—Pertsona onuradunak.**

1. 8 urtetik gorako pertsona fisikoak aurkeztu ahal izango dira literatura-lehiaketa honetara; aurkezten dituzten lanek originalak izan behar dute, ezin dira aurretik argitaratutakoak izan eta, era berean, honako sail hauetan sailkatuko dira elkarren aurka lehiatzeko.

2. Ezinbesteko baldintza izango da Iurretako Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko 6. eta 8.artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzea.

3. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eguneratuak izatea.

4. Dirulaguntzak honako betekizun hauek betetzen dituzten pertsonei eman ahal izango zaizkie, eta, era berean, honako sail hauetan sailkatuko dira elkarren aurka lehiatzeko.

Sinatzaile / Firmante: IURRETAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE IURRETA Data: 2026-02-09 12:20:41(UTC) Fecha: 09/02/2026 12:20:41 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: MARIA ISABEL ARRIZABALAGA SALGADO Data: 2026-02-09 13:04:38(UTC) Fecha: 09/02/2026 13:04:38 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: OSCAR COCA LORENTE Data: 2026-02-10 11:19:28(UTC) Fecha: 10/02/2026 11:19:28 (UTC)
Dekretuen zk. / N. decreto: 0144/26 Dekretuen data / Fecha decreto: 10/02/2026
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {d733a173-6ea5-428c-a258-2506138db73a} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

**IPUIN, POESIA, BERTSO-PAPER ETA KOMIKIEN KATEGORIAK:**

- **Haur saila:**

1. Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoak (8-10 urte).
2. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoak (11-12 urte).

- **Gazte saila:**

3. DBHko 1. eta 2. mailakoak (13-14 urte).
4. DBHko 3. eta 4. mailakoak (15-16 urte).
5. Batxilergoko 1. eta 2. mailakoak edo Lanbide Heziketako erdi-maila (17-18 urte).

- **Helduak:**

6. 18 urtetik gorako adina duen edonork parte har dezake.

5. Sexua dela-eta inor baztertzeagatik administrazio-zehapenik edo zehapen penalik jaso duten pertsonek ezin izango dute parte hartu, dagokien zehapena indarrean dagoen bitartean; Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 3 artikuluan xedatutakoarekin bat eta Emakume eta Gizonen arteko benetako Berdintasunari buruzko martxoa-ren 22ko 3/2007 Lege Organikoa dela-eta debeku hori ezarri zaienak ere dekretu honek arautzen duen deialditik kanpo geldituko dira.

6. Onuradunek ezin izango dituzte dirulaguntzak jaso, baldin eta instantziak aurkeztu behar direnean Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak eguneratuta ez badituz; era berean, diru-laguntzak Arautzeko Ordenantzan jaso diren arrazoiengatik ere ezingo dituzte laguntza horiek jaso. Ziurtagiriak aurkezte hutsak ez du esan nahi ziurtagiri horiek egokiak direnik.

**3. oinarria.—Eskabideak aurkezteko tokia eta epea**

1. Parte-hartzeko behar den bezala betetako eskabidea (I. Eranskina) Iurretako Udaleko Herritarren Harreta Zerbitzuan"HAZ" (Bidebarrieta kalea, 5) 48215 Iurreta (Bizkaia) aurkeztu ahal izango da.

Era berean, eskaerak, urriaren 1eko 39/2015 Legearen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen.16.4 artikuluak aurreikusten dituen lekuetan ere egin ahal izango dira.

Informazioa eta eskaera orria Herritarren Harreta Zerbitzuan"HAZ", udaleko web gunean (www.iurreta.eus) eta Herri Bibliotekan (Bidebarrieta kalea, 4). 48215 Iurreta (Bizkaia) eskuragai izango dira.

2. Eskabideak aurkezteko epea deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko den egunaren biharamunetik 15 egun natural izango dira.



Sinatzaile / Firmante: IURRETAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE IURRETA Data: 2026-02-09 12:20:41(UTC) Fecha: 09/02/2026 12:20:41 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: MARIA ISABEL ARRIZABALAGA SALGADO Data: 2026-02-09 13:04:38(UTC) Fecha: 09/02/2026 13:04:38 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: OSCAR COCA LORENTE Data: 2026-02-10 11:19:28(UTC) Fecha: 10/02/2026 11:19:28 (UTC)
Dekretuen zk. / N. decreto: 0144/26 Dekretuen data / Fecha decreto: 10/02/2026
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {d733a173-6ea5-428c-a258-2506138db73a} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

**4. oinarria.— Eskabideekin batera aurkeztu beharreko agiriak**

1. Eskabideak behar bezala beteta, udal dekretu honen inprimaki gisa erantsitako eredu ofizialean aurkeztu beharko dira, hurrengo puntuetan adierazitako agiriekin eta eskatzaileak edo haren legezko ordezkariak izenpetuta elkarreragingarriak direnak izan ezik: https://www.iurreta.eus/es-ES/Cultura/noticiasdecultura/Documents/20250207-izen-ematea.pdf

Iurretako Udalak, Bizkaiko Elkarreragingarritasun nodoaren bidez eskuragarri dauden datu-bitartekaritzako sistemen bidez, administrazio publikoen esku dauden diru-laguntza hauek izapidetzeko beharrezkoak diren erakunde parte-hartzaileen datuen egiaztapen eta kontsulta egokiak egingo ditu, salbu eta berariaz aurka agertzen badira; kasu horretan, aurka egiteko arrazoiak adierazteaz gain, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko dira.

Nolanahi ere, elkarreragingarritasun-arrazoi teknikoak direla-eta ezinezkoa bada, Iurretako Udalak izapideak egiteko behar diren datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

Eskabidean, besteak beste, honako hauek jaso beharko dira:

a) Erantzukizunpeko adierazpena, zein aren bitartez adieraziko den ez duela Iurretako Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 8. artikuluan onuraduna izateko ezarritako debeku-arrazoirik.

b) Aurretiaz emandako diru-laguntzak itzultzeko obligazioaren ordainketa egunean izatea, edo behar bezala justifikatuta ez izatea, kasu bietan eskumena duen organo eskudunaren ebazpenaren arabera.

c) Erantzukizunpeko adierazpena, zeinaren bitartez adieraziko duen eskabidea aurkezteko unean ez duela lana beste literatur lehiaketa batera aurkeztu edo beronengatik ez duela diru-laguntzarik jaso.

d) Iurretako Udaleko udal-zerbitzuei berariazko baimena ematea eskumena duten erakundeengandik dirulaguntzen onuradun izateko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzeko beharrezkoak diren datuak biltzeko, 2016/679 Erregelamenduko (EB) 4.11. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

2. Parte-hartzaileek idatzitako kontakizunaren kopia bat modu anonimoan entregatuta. Obraren aleak ez dira sinatu behar; zenbakia jarrita izango dute orrialde guztietan, eta kontakizunaren izenburua adierazita izan behar dute; ez, ordea, egilearen identifikazio-daturik.

Eskabidea aurkeztean, oinarri hauetan deskribatutako arau guztiak onartzen direla ulertuko da.

Sinatzaile / Firmante: IURRETAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE IURRETA Data: 2026-02-09 12:20:41(UTC) Fecha: 09/02/2026 12:20:41 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: MARIA ISABEL ARRIZABALAGA SALGADO Data: 2026-02-09 13:04:38(UTC) Fecha: 09/02/2026 13:04:38 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: OSCAR COCA LORENTE Data: 2026-02-10 11:19:28(UTC) Fecha: 10/02/2026 11:19:28 (UTC)
Dekretuen zk. / N. decreto: 0144/26 Dekretuen data / Fecha decreto: 10/02/2026
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {d733a173-6ea5-428c-a258-2506138db73a} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

**5. oinarria.—Eskabideak zuzentzea edo hobetzea**

1. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo udal dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat ez badute, oinarri hauen arabera agindeia egingo zaio eskatzaileari, hamar (10) egun baliodunko epean akatsa zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan, eta ohartaraziko zaio horrela egin ezean eskabidean atzera egindakotzat joko dela eta, behin ebazpena emanda, beste izapiderik gabe.

2. Edonola ere, Iurretako Udalak aurkezten diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango die interesdunei.

**6. oinarria.- Emateko prozedura**

Sariak norgehiagoka sistemaren bidez emango dira, hau da, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da eta aurkeztutako kontakizunak alderatuko ditu, 7. oinarrian ezarritako ebaluazio-irizpideak kontuan hartuta, eskabideen arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko.

**7. oinarria.—Kontakizunak baloratzeko irizpideak**

1. Deialdi honetarako izendatuko den epaimahai kalifikatzaileak bakarrik aztertuko ditu epearen barruan aurkeztutako eskabideak, eta beraren iritziz puntu gehien lortu dituztenei emango dizkie sariak. Gehienez ere 10 puntu lortu ahal izango dira, eta puntuok erabakitzeko irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Proposatutako kontakizunari emandako jarraipena eta harekiko batasuna: 4 puntu, gehienez.

b) Kalitate literarioa: 3 puntu, gehienez.

c) Istorioaren garapenean izandako sormena: 3 puntu, gehienez.

2. Saria eman gabe geratu ahal izango da, baldin eta, epaimahaiaren iritziz, aurkeztutako kontakizunek ez badituzte betetzen sarituak izateko ezarritako baldintzak, edo balorazioan ez bada puntuazio nahikorik eskuratu. Edonola ere, saria banatzeko prozeduran objektibotasun, gardentasun, berdintasun, publizitate eta lehia printzipioei eutsiko zaie.

3. Epaimahai kalifikatzaileak ahalmena du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna zaintzen ez duten kontakizunak kanpoan uzteko eta baztertzeko, otsailaren 18ko 4/2005 Euskal Legeak eta indarrean dauden gainerako legezko xedapenek ezarritakoarekin bat.



Sinatzaile / Firmante: IURRETAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE IURRETA Data: 2026-02-09 12:20:41(UTC) Fecha: 09/02/2026 12:20:41 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: MARIA ISABEL ARRIZABALAGA SALGADO Data: 2026-02-09 13:04:38(UTC) Fecha: 09/02/2026 13:04:38 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: OSCAR COCA LORENTE Data: 2026-02-10 11:19:28(UTC) Fecha: 10/02/2026 11:19:28 (UTC)
Dekretuen zk. / N. decreto: 0144/26 Dekretuen data / Fecha decreto: 10/02/2026
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {d733a173-6ea5-428c-a258-2506138db73a} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

**8. oinarria.—Epaimahai kalifikatzailea**

1. Aurkeztutako kontakizunak aztertu eta ebaluatzeko, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da.

Epamahai hori horrela osatuta egongo da, atal bakoitzean epamahiburu bat egongo delarik:

Haur eta gazteen atala:
Maiztegi Herri Eskolako ordezkaria:
Jokin Rementeria Bildosola

Juan Orobiogoitia Institutuko ordezkaria:
Naroa Ogando Ubiria

Haur eta gazteen irakurle klubeko dinamizatzailea:
Peru Magdalena Arriaga

Helduen irakurle klubeko dinamizatzailea:
Ainhoa Aldazabal Gallastegi

Bizkaiko Bertsozale Elkartea:
Idoia Anzorandia Kareaga
Ander Elortegi Garatea
Josu Telleria Uriarte
Jone Larrinaga Dañobeitia

Artista grafikoa:
Anartz Aranguena Garcia

Iurreta Eleizateko Udaleko ordezkariak:
Zorione Fundazuri Urkidi (Epamahaiburua)
Ziortza Duñabeitia Urkiola

**Helduen atala:**

Haur eta gazteen irakurle klubeko dinamizatzailea:
Peru Magdalena Arriaga

Helduen irakurle klubeko dinamizatzailea:
Ainhoa Aldazabal Gallastegi

Bizkaiko Bertsozale Elkartea:
Idoia Anzorandia Kareaga
Ander Elortegi Garatea
Josu Telleria Uriarte
Jone Larrinaga Dañobeitia

Bidebarrietakalea, 5 • 48215 IURRETA •Tfnoa: 94 620 12 00 •haz-sac@iurreta.eus•IFZ/NIF: P4812500I

Sinatzaile / Firmante: IURRETAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE IURRETA Data: 2026-02-09 12:20:41(UTC) Fecha: 09/02/2026 12:20:41 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: MARIA ISABEL ARRIZABALAGA SALGADO Data: 2026-02-09 13:04:38(UTC) Fecha: 09/02/2026 13:04:38 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: OSCAR COCA LORENTE Data: 2026-02-10 11:19:28(UTC) Fecha: 10/02/2026 11:19:28 (UTC)
Dekretuen zk. / N. decreto: 0144/26 Dekretuen data / Fecha decreto: 10/02/2026
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {d733a173-6ea5-428c-a258-2506138db73a} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Artista grafikoa:
Anartz Aranguena Garcia

Iurreta Eleizateko Udaleko ordezkariak:
Zorione Fundazuri Urkidi (Epamahaiburua)
Julen Calleja Ortiz
Iñako Gurrutxaga Ugalde

2. Epamahiak egilea nor den jakin gabe baloratuko ditu aurkeztutako lanak.

3. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, epamahaiak txosten bat egingo du bi hilabeteko epean; bertan, gutxienez hauxe jasoko da: aurkeztutako eskabideak, lehiaketan saritutako lanen arrazoizko zerrenda bat kategoriatan sailkatuta eta saritu gabe geratu diren kategoriak, halakorik gertatuz gero.

4. Bestalde, haur eta gazteen kategorian, epamahaiak lanen kalitateak hala merezi badu, aipamen bereziak eman ahal izango ditu. Gehienez ere hamasei aipamen.

5. Epaimahai kalifikatzaileak, sariak emateko irizpideak kontuan hartuta, ebazpen-proposamena aurkeztuko erakunde emailearen aurrean, alkatearen aurrean, alegia, behin betiko ebazpena eman dezan.

**9. oinarria.- Prozeduraren instrukzioa eta ebazpena.**

Organo instruktorea dirulaguntza kudeatzeaz arduratzen den pertsona izango da, eta ebazpena emateko datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeko egokitzat jotzen dituen jarduketak egin ahal izango ditu.

8. oinarrian aurreikusten den bezala, balorazio-mahaia lehiaketarako izendatua izan den epamahia izango da, instrukzioaz arduratzen den pertsona bat idazkaria izango delarik. Hau saioetara bertaratuko da, ahotsa izanik baina ez bozkarik.

Prozeduraren instrukzioa Iurretako Udaleko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 14. artikuluan ezarritakoari jarraikiz egingo da.

Ez da beharrezkoa izango entzunaldi izapidea egitea interesdunek eman dituzten alegazioetan eta frogetan, edo, prozeduran kontuan hartzen ez diren eta jasoko ez diren bestelako gertaeren kasuan.

Ebazpena emateko eta jakinarazteko gehienez ere 3 hilabeteko epea dago, kontakizunak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta. Iurretako Udaleko Alkateak emango du ebazpena, Epaimahai Kalifikatzaileak proposamena eginda. Epe hori eskabideari buruzko ebazpen adierazirik eman gabe igarotzen bada, eskabidea ezetsitzat joko da; hala ere, ebazpen adierazia geroago ere eman ahal izango da.

Diru-laguntza behin betiko emateko erabakiak amaiera emango dio administrazio-bideari.

Sinatzaile / Firmante: IURRETAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE IURRETA Data: 2026-02-09 12:20:41(UTC) Fecha: 09/02/2026 12:20:41 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: MARIA ISABEL ARRIZABALAGA SALGADO Data: 2026-02-09 13:04:38(UTC) Fecha: 09/02/2026 13:04:38 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: OSCAR COCA LORENTE Data: 2026-02-10 11:19:28(UTC) Fecha: 10/02/2026 11:19:28 (UTC)
Dekretuen zk. / N. decreto: 0144/26 Dekretuen data / Fecha decreto: 10/02/2026
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {d733a173-6ea5-428c-a258-2506138db73a} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Ebazpenak gutxienez, onuradun izan diren pertsonen zerrenda, sariak eta suertatu litezkeen ukapenen motibazio egoki eta nahikoak.

Ebazpena udaletxeko ediktuen taulan argitaratuko da, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Era berean, Udaleko web gunearen (www.iurreta.eus) bitartez ere beronen berri emango da.

**10. oinarria.—Sariak**

1. Saria jaso duten kontakizunak Iurretako Udalak sustatutako edizio berezi batean argitaratuko dira.

2. Saritutako lanak, sailaren arabera, liburu sortez edo durangaldean kokatzen diren adostutako liburudendetan gastatzeko bonuez osatuak egongo dira, hurrengo zenbatekoen balorea izango dutelarik:

**IPUINA, POESIA ETA BERTSO-PAPERAK KATEGORIAK**

- **Haur eta gazteak**

1. Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoak (8-10 urte)
   - 1. saria: 50 euroan baloratutako liburu sorta.
   - 2. saria: 40 euroan baloratutako liburu sorta.
   - 3. saria: 30 euroan baloratutako liburu sorta.

2. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6.mailakoak (11-12 urte)
   - 1. saria: 70 euroan baloratutako bonua.
   - 2. saria: 50 euroan baloratutako bonua.
   - 3. saria: 35 euroan baloratutako bonua.

3. DBHko 1. eta 2. mailakoak (13-14 urte)
   - 1. saria: 90 euroan baloratutako bonua.
   - 2. saria: 60 euroan baloratutako bonua.
   - 3. saria: 45 euroan baloratutako bonua.



Sinatzaile / Firmante: IURRETAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE IURRETA Data: 2026-02-09 12:20:41(UTC) Fecha: 09/02/2026 12:20:41 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: MARIA ISABEL ARRIZABALAGA SALGADO Data: 2026-02-09 13:04:38(UTC) Fecha: 09/02/2026 13:04:38 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: OSCAR COCA LORENTE Data: 2026-02-10 11:19:28(UTC) Fecha: 10/02/2026 11:19:28 (UTC)
Dekretuen zk. / N. decreto: 0144/26 Dekretuen data / Fecha decreto: 10/02/2026
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {d733a173-6ea5-428c-a258-2506138db73a} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

4. DBHko 3. eta 4. mailakoak (15-16 urte)

- 1. saria: 130 euroan baloratutako bonua.
- 2. saria: 70 euroan baloratutako bonua.
- 3. saria: 50 euroan baloratutako bonua.

5. Batxilergoko 1. eta 2. mailakoak edo Lanbide Heziketako erdi-maila (17-18 urte)
   - 1. saria: 150 euroan baloratutako bonua.

6. **Helduak**
   - Saria: 200 euroan baloratutako bonua.

**KOMIKIA KATEGORIA**

- **Haur eta gazteak**

1.- Lehen Hezkuntzako 3. eta 4.mailakoak (8-10 urte).
- Saria: 50 euroan baloratutako liburu sorta.

2.- Lehen Hezkuntzako 5. eta 6.mailakoak (11-12 urte).
- Saria: 70 euroan baloratutako bonua.

3.- DBHko 1. eta 2. mailakoak (13-14 urte).
- Saria: 90 euroan baloratutako bonua.

4.- DBHko 3. eta 4. mailakoak (15-16 urte).
- Saria: 130 euroan baloratutako bonua.

5.- Batxilergoko 1. eta 2. mailakoak edo Lanbide Heziketako erdi-maila (17-18 urte).
- Saria: 150 euroan baloratutako bonua.

Kategoria hauetan epaimahaiak hiru aipamen berezi eman ahal izango ditu gehienez ere, 25 eurotan baloratutako bonu edo liburu sorta gisa.

6. **Helduak**

Saria: 200 euroan baloratutako bonua.



Sinatzaile / Firmante: IURRETAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE IURRETA Data: 2026-02-09 12:20:41(UTC) Fecha: 09/02/2026 12:20:41 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: MARIA ISABEL ARRIZABALAGA SALGADO Data: 2026-02-09 13:04:38(UTC) Fecha: 09/02/2026 13:04:38 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: OSCAR COCA LORENTE Data: 2026-02-10 11:19:28(UTC) Fecha: 10/02/2026 11:19:28 (UTC)
Dekretuen zk. / N. decreto: 0144/26 Dekretuen data / Fecha decreto: 10/02/2026
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {d733a173-6ea5-428c-a258-2506138db73a} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

**11. oinarria. —Publizitatea**

Oinarri arautzaileak eta deialdia Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean erregistratuko dira. Erakunde horrek deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialera bidaliko du, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17., 18. eta 20. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz. Hala ere, oinarriak eta deialdia udal-iragarki-taulan argitaratuko dira.

**12. oinarria. —Saridunen betebeharrak**

1. Saridunek eurek joan behar dute sari-banaketa ekitaldira, horretarako adierazten zaien toki, egun eta orduan, eta ezingo balu joan, berriz, ordezkari bat bidali beharko luke. Gainera, saria jaso duen kontakizuna euskarri informatikoan eman behar dute.

2. Editatutako material guztietan eta diru-laguntza jaso ondoren egindako jendaurreko agerpen guztietan Iurretako Udalaren babesa agerraraztea. Horretarako, Iurretako Udalaren erakunde-irudiak ezarritako elementuak baliatuko dira nahitaez, eta logotipoaren aldamenean esaldi hau agertuko da hitzez hitz: «Ekintza honek Iurretako Udalaren laguntza jaso du» edo «Iurretako Udalak babestutako ekintza/Actividad subvencionada por el Ayuntamiento de Iurreta».

**13. oinarria. — Jabetza intelektuala**

Saria ematen denetik aurrera, hurrengo urtebetean Iurretako Udalak bakarrik izango ditu saritutako lanak erreproduzitu, banatu eta saltzeko eskubideak, eta sariaz aparte ez du beste ordainketarik egin beharko, saria baita ordainsari osoa eta bakarra.

**14. oinarria.— Beste dirulaguntza batzuekin bateragarria ez izatea**

Oinarri hauei jarraikiz emandako dirulaguntzak ez dira bateragarriak izango dira beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo beste entitate publiko zein pribatu batzuetatik datozen baliabide batzuekin.

**15. oinarria.—Ezarri beharreko arautegia**

Oinarri honetan jaso ez den guztiari dagokionez, Iurretako Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra aplikatuko zaio, 2019ko maiatzaren 30eko Udalbatzaren erabakiaren bitartez onetsi zena. Gainera, bertan jaso ez denari dagokionez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Organikoan eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan onetsitako araubidean jasotakoaren arabera arautuko da. Bestalde, honako hauek aplikatuko dira: Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, deialdia egiten den unean indarrean dagoen aurrekontua betetzeko araua eta aplikatu behar den gainerako araudia.



Sinatzaile / Firmante: IURRETAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE IURRETA Data: 2026-02-09 12:20:41(UTC) Fecha: 09/02/2026 12:20:41 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: MARIA ISABEL ARRIZABALAGA SALGADO Data: 2026-02-09 13:04:38(UTC) Fecha: 09/02/2026 13:04:38 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: OSCAR COCA LORENTE Data: 2026-02-10 11:19:28(UTC) Fecha: 10/02/2026 11:19:28 (UTC)
Dekretuen zk. / N. decreto: 0144/26 Dekretuen data / Fecha decreto: 10/02/2026
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {d733a173-6ea5-428c-a258-2506138db73a} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

**16. oinarria.—Arau-hausteak eta zehapenak**

Arau-hausteak egiteari eta zehapenak jartzeari lotutako guztia Iurretako Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren arabera arautuko da, 2019ko maiatzaren 30eko Udalbatzaren erabakiaren bitartez onetsi zena. Bertan jaso ez denari dagokionez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Organikoan eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan onetsita-ko araubidean jasotakoaren arabera arautuko da.

